

Ateratzeak, elkartasunaren zirkua eta alzheimer politikoa



ITZIAR MORENO
EUSKAL PERTSONA
POLIFAZETIKOA

Zerk harritu zintuen gehien kartzelatik atera zinenean? Galdetu didate maiz azken urte eta erdian.

Bilboko kaleak turista eta bi hankadun txakurrez lepo daudela ikusteak, adibidez? Edo egoera politikoaren aldaketak? Lehenengoak akitu eta amorratu nau, badago zer borrokatzen jarraitu, jakina! Bigarrena, iritziak iritzi, ez da harridurako motibo izan bederen; barruan gaudenean, egoera jarraitu ez ezik, lanean dihardugulako gure herriaren alde.

Jendearen harridurak harritu nau ni. Zeinenak? Esaterako, Aste Nagusiko txosnak muntatzen ari garenean, badira lana galdegiteko hurbiltzen diren gazteak. Lan guztia (aldamia igo, panelak egin eta margotu, barra txandak bete eta abar luzea) musu-truk egiten dugula jakitean, aho zabalik geratzen dira. Adigaitza suertatzen zaie, omen, diru truke (edo gimnasioan) ez den esfortzu bat egitea. Horrek zurtu nau ni, bolondreski eta bidezko zio bat dugulako egiten dugun auzolana ulertezina suertatzea egungo jendartearen sektore bati.

Zorionez, ez da gaitz orokortua! Gurean eta atzerrian, badira sobera adibide galant.

Kanpoan izan naiz aurreko asteburuan, non eta Sevillako Tatto Circusean; dispartzioaren bidaia luzeak gogoan. Ekitaldi hori ezagutzen ez duenarentzat, argibiderako hitz bi. Europan, han eta hemen ospatzen den jaialdia da, oro har, kartzelaren aurkako mugimendu anarkistak antolatuta. Hiru egunez hitzaldiak, antzezlanak edota musika emanaldiak eskaintzen dira, denean, giro ederrean: irrigarria eta borrokalaria. Bestaren funtsa da presoentzat dirua ateratzea eta, horretarako, doanik lan egiten duten tatuatzaileak ekartzen dituzte. Bai, lana debalde! 72 orduz jo eta su aritzen dira larruaren marrazkilari profesionalak, sukaldariak, sortzaileak, azpiegitalariak eta abarrak. Lortzen den diru guztia kartzelako harresiak botatzen jarraitzeko da. Beste behin ere, nik neuk murru horiek atzean utzi nituenetik, edonongo militante xumeen emate mugagabe eskuzabalak harritu eta hunkitu egiten nau. Asteburuaren ginga, barruko kideen deia jasotzea! Aupa zuek! Jakin ezazue zuek etxera ekartzeko borrokan jarraitzen dugula! ●

Opari



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Segur aski, gutariko gehienek jada erosiak dituzte, han eta hemen, Eguberrikari banatzeko opariak. Olentzeroren bisita gautar hori hitzordu handia baita, bereziki haurrentzat. Denak prestatzen dira urteko garai emankor horretarako: Bilbo sutan agertzen da, Gasteiz, Iruña eta Baiona bezainbeste, Donostiako errota erraldoia ahanzi gabe. Komertzioak aitzina joan behar duelako, karriketako eskaleak, jende plantakoek eta umeek ikusiko ez dituzten auzo urrunetara haizatzen dira frankotan, manu militari!

Ez da opari bat, mundu laurden *opu-*

lente honetan, pobreziaren ondorioak pairatzea, bizidunen gorputzak eta gogoeta hariak hausten edo apurtzen dituelako. Nola esplikatu egoera hau, eskutik daramazkigun bilobei, adibidez? Pobreak pobre al dira, gobernuek dioten bezala, alferrak eta laguntza egiturez baliatzea baino ez dutelako gogoan? Ala egitura neoliberalaren barruko parametro sistemikoa da pobrezia?

Negua eta abenduko azken egunak hurbiltzen direnean, egundainokoan, Andersen *Supizteko saltzaile txikiaren* ipuina dabilkit buru zokoan biribilketan eta begiak bustitzen zaizkit. ●